



Bere Maiestatearen Gabonetako mezua

Errege Jauregia, 2024ko abenduaren 24a



Gabon, eta eskerrik asko biltzeko eta ospatzeko gau berezi honetan zuekin unetxo bat egoten uzteagatik. Erreginak, Leonor printzesak, Sofia infantak eta nik Gabon gau zoriontsu eta lasaia opa dizuegu.

Gabon gau honetan, lehenik eta behin, ulertuko duzuen bezala, Espainiako ekialde eta hegoaldeko hainbat eremu eta, batez ere, Valentzia jo zituen tanta hotz izugarriaz hitz egin behar dut.

Gure errespetu osoa erakutsi nahi dugu bizitza galdu eta desagertu ziren hainbat lagunengatik, eta ezin dugu ahaztu beren senideen artean utzitako bihozmina eta goibeltasuna. Milaka lagunek beren herriak, auzoak, lantokiak, etxeak, negozioak eta eskolak suntsitzen eta desagertzen ikusi zituzten. Gertaera hori onartzeko zaila izan arren, guztiok horretatik ikasi egin behar dugu, gizarte garen aldetik indartsuago bihurtzeko eta hazten ikasteko.

Ezin ditugu ahaztu guztia eraman zuen lehen uhaldi hura eta hainbat pertsonen salbamendua, batzuk gaixoak, zaharrak edo nekatuak, autotik ateratzen saiatzen zirenak edo teilatu nahiz zabaltzeetan babesa bilatzen zutenak. Halaber, kaltetuenei aterpea emateko etxeko ateak ireki zituztenak ikusi ahal izan genituen, solidaritatearen eta gizatasunaren kemen izugarriaz uraren eta istilaren indar gupidagabeari aurre eginez. Auzotarrak, boluntarioak, babes zibileko langileak, suhiltzaileak, segurtasun kidegoak, Indar Armatuak, GKEak, diru-bilketak eta emariak antolatu zituzten enpresak, baita beren langileak eta makineria eraman zituztenak... Guztion laguntza eta kolaborazioari esker, poliki-poliki eragindako 800.000 lagun baino gehiago beren bizitzan nonbaiteko normaltasuna ari dira berreskuratzen. Eta epe ertain eta laburrean laguntza behar dute ere, erabateko berreskurapena bermatzeko.



Solidaritate hori, hain zintzoa eta zehatza, egunero boluntario anonimoek eta zerbitzari publikoek egindako egundoko lanean hezurmamitu egin da. Eta modu horretan ere bai, frustrazioa, bihozmina, ezinegona eta administrazioaren eskutik koordinazio eragingarriagoa eta hobe jasotzeko erregua ikusi eta ulertu ahal izan dugu. Izan ere, hunkitzen eta indarberritzen, atsekabetzen eta penatzen gaituzten emozio horiek guztiek erro berbera dute: Guztion onaren kontzientzia, guztion onaren adierazpena edo guztion onaren eskakizuna.

Balitzko desadostasun eta desakordioen gaineratik, Espainiako gizartearen sustraietan argi dago komeni den hori, guztioi onura ekartzen digun hori eta, horregatik, hura babesteko eta sendotzeko interesa eta erantzukizuna dugu. Hori da Erreginak eta nik ikusi ahal izan duguna, baita baloratu ere, erregealdiaren hamarkada honetan. Erakunde eta Administrazio Publikoen erantzukizuna da guztion onaren kontzeptu hori argi eta garbi islatzea, edozein mintzalditan eta edozein erabaki politikotan. Oinarrizkoaren aldeko adostasunak, helburua den aldetik eta etengabeko praktika den aldetik, eremu publikoa bideratu behar du. Helburua ez da iritzi ezberdinak ekiditea, horiek bidezkoak eta beharrezkoak baitira demokrazian; helburua da, aldiz, esparru partekatuaren ukapena aniztasunak ekartzea ekiditea.

Oinarrizkoaren aldeko adostasun horretan, bizitza kolektiboan modu ezberdinetan kezkatzen eta eragiten gaituzten arazoei aurre egin behar diegu. Nazioarteko goranzko ezegonkortasuna, gure eztabaida publikoan askotan sortzen den ingurumena, etxebizitza lortzeko edo immigrazioa kudeatzeko zailtasunak... Arazo horiek guztiek, besteak beste, geure arreta merezi dute. Eta gaur horietaz mintzatu nahi dut ere.



Immigrazioa fenomeno konplexua da, sentsibilitate sozial handikoa, kausa ezberdinak dituena. Gaur egungo gizarteak, irekiak eta elkarren artean konektatuak, ezin lirатеke sortu historian zehar populazioaren mugimendurik izan ez balitz. Beraz, eguneroko errealitatea dela jakinik, behar bezala kudeatzen ez diren immigrazio-mugimenduek kohesio soziala hondatu dezaketen tentsioak ekar ditzakete.

Guztioi dagokigun integratzeko esfortzua, guztioi dagokigun bizikidetasun eta gizatasunaren oinarritzko lege eta arauen aldeko errespetua eta gizaki orok merezi duen duintasunaren onarpena, horiek dira immigrazioa kudeatzeko gidatu behar gaituzten oinarriak. Pertsonekin trafikatzan duten sare eta mafien aurkako borrokak behar duen tinkotasuna ahaztu gabe. Immigrazioari aurre egiteko moduak, Europako kideekin eta jatorritzko nahiz iragateko herrialdeekin koordinazio egokia behar duenak, etorkizunean argi utziko ditu geure printzipioak eta gure demokraziaren kalitatea.

Kezkagarria den beste gai bat, batez ere gazteentzat, etxebizitza lortzeko zailtasuna da. Hiriak, batez ere handienak, hazkuntza-guneak dira, eta bertan eskaria eskaintza baino handiagoa da. Berriz ere, garrantzitsua da parte hartzen duten guztiek hausnarketa egitea, elkarren artean entzutea, aukera ezberdinak aztertzea eta, elkarriketaren bidez, baldintza egokietan etxebizitza lortzeko ebazpenak aurkitzea, batez ere gazteentzat eta ahulenentzat, etxebizitza baita bizitza-proiektu guztietan segurtasuna eta ongizatea erdiesteko oinarria. Eta, benetan, lor dezakegu.

Orobat, geure bizitzan eragin handia du gero eta konplexuago, aldakorrago eta ezegonkorrago den kanpoko egoerak. Maiz ikus dezakegu nazioarteko zuzenbidea zalantzan jartzen dela, indarkeria erabiltzen dela, giza eskubideen unibertsaltasuna ukatzen dela edo multilateralismoa



zalantzan jartzen dela gaur egungo erronka globalei aurre egiteko orduan, hala nola krisi klimatikoak edo ingurumenaren krisiak, pandemiak, energia-trantsizioa, komertzioa edo baliabide naturalen eskasia. Izan ere, demokraziaren balioa gobernu-sistema gisa zalantzan jartzen dela ikusi dugu.

Testuinguru honetan, Espainiak eta Europako Batasuneko gainerako estatu kideek, nazioarteko gure kideekin batera, uste osoz eta sendotasunez defendatzen jarraitu behar dituzte demokrazia liberalaren oinarriak, giza eskubideak eta ongizate sozialaren lorpenak, horiek baitira gure proiektu politiko zoragarriaren funtsak. Europa, Europaren kontzeptua, gure identitate partekatuaren oinarria delako, etorkizuneko belaunaldiei utzi behar diegun ondarea delako. Munduak, gaur egun, aktore indartsu eta bateratuak behar ditu, baina batez ere printzipioetan eta balioetan inspiratutako jokabideak. Eta lan horretan Europa gure erreferentziarik sendoena da.

Eta barrurantz begiratzen badugu, Espainian erreferentziarik handiena 1978ko Konstituzioa da, bere testuak eta mamia. Funtseko akordioa izan zen inspiratu zuen oinarrizko printzipioa. Guztion onaren alde lan egitea da, hain zuzen, bizikidetasunaren akordio nagusia babestea, non geure demokrazia sendotzen den eta geure eskubideak eta askatasunak ezartzen diren, horiek gure Zuzenbidezko Estatu Sozial eta Demokratikoaren oinarriak baitira. Nahiz eta denbora igaro den, sortu zuen akordioa da gure oinarririk handiena. Akordio-izpiritu hori landu behar dugu gure erakundeak sendotzeko eta gizarteak horiengan duen konfiantzari eusteko.

Bizikidetasunaren akordioa babesteko hitz egin behar da. Eta elkarrizketa horrek, behar bezala eta zintzotasunez, guztion nahiaren definizioa eta Estatuaren ekintza bultzatu behar ditu. Horregatik, gatazka politikoak, bidezkoa baina batzuetan nekagarria, gero eta beharrezkoagoa



den aldarrikapenari erantzun behar dio: baretasuna. Baretasuna eremu publikoan eta eguneroko bizitzan, proiektu kolektiboari, indibidualei edo familiarrei aurre egiteko, aurrera egiteko eta behar handienak dituzten horiek zaintzeko eta babesteko. Duela gutxi Konstituzioaren 49. artikuluan egindako aldaketa, desgaitasunak dituzten pertsonen buruzkoa, elkarrekin lor dezakegunaren adibide ederra da. Desadostasunak ezin du etengabeko zarata bihurtu, horrek ez baitigu utziko herritarren benetako hotsa entzuten.

Askotan esaten entzun didazue, eta berriz ere errepikatuko dut: Espainia herrialde handia da. Aparteko historia duen herrialdea da, eta nahiz eta denboraldi ilunagoak izan, azken hamarkadatan eredu garapen demokratikoa izan du, eta hainbeste biktima utzi zituen terrorismoa garaitu zuen. Herrialde honek egiteko gauza asko ditu oraindik, hala nola txirotasuna edo gizarte bazterkeria murrizteko, baina esperantzagarria da, ordea, gure ekonomiaren bilakaera (besteak beste, hazkuntzan, enpleguan edo esportazioetan) eta gure ongizate sozialaren maila orokorra. Eta benetan uste dut etorkizunean Espainiarrok potentzial izugarria dugula, eta horrek gure itxaropena piztu behar duela, bai estatu mailan, bai nazioartean.

Etorkizun horren oinarria gazteak dira nagusiki. Joko olinpiko eta paralinpikoetan eta Europako kopan gure herrialdea nabarmendu zuten gazteak, zailtasunen aurrean proiektuei ekiten dieten gazteak, gure zientziaren abangoardian dauden gazteak. Gure helduak eta beren esperientziak errespetatzen dituzten gazteak, berdintasunaren eremuan aurrerapenak aldarrikatzen dituzten gazteak, gure eskola, institutu, unibertsitate, lanbide-hezkuntzako ikastetxeetan ikasten duten gazteak, gogoz laneratu ahal izateko, gazteen langabezia-tasari aurre egiteko. Azken finean, aukerak bilatzen dituzten gazteak, merituen eta esfortzuaren bidez



zailtasunak gainditzen dituztenak. Baina, batez ere, tanta hotzaren eragina jasan duten herrietako kaleetara pilaka joan direnak, buru-belarri lan egin dutenak eta harrotasunez bete gaituztenak.

Lan-izpiritu horrekin eta guztiona den horrenganako konpromisoarekin, nire mezuari amaiera eman nahi diot, baina hasierara bueltatuz. Uholdeek eragindako udalerrri eta eskualde guztietara bueltatu nahi dut. Egiteko asko dago oraindik eta herritarrek behar izugarriak dituzte oraindik, baina ez dute itxaropenik galdu.

Unerik latzenetan bildu gaituen solidaritateari eutsi behar diogu, keinu, ekintza eta erabaki bakoitzean. Behar duten guztiei laguntza eman behar zaie, eraiki duten etorkizun hori berreraiki dezaten, eta batzuetan errukigabea dirudien oraineko erronkei kemenez eta duintasunez aurre egiteko. Zenbat eta lehenago erdietsi, orduan eta gehiago indartuko dugu gure komunitate zentzua, gure herrialde sentimendua. Ibiltako bidearen memoria, orainaren aldeko konfiantza eta etorkizunaren aldeko itxaropena guztion onaren halabeharrezko alderdia direlako, akaso baliagarriena, baina ahulena ere.

Eutsi diezaiogun adostasunez eta bizikidetasunez beteriko egun hauetako izpirituari urteberrian. Erreginak, gure alabek, Leonor printzesak eta Sofia infantak, eta nik, Gabon Zoriontsuak opa dizkizuegu.

Eguberri On, Bon Nadal, Boas Festas.